

ataria

OSTEGUNA

2023/06/15
11. urtea, 1.805. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

BIRA BIDAIA



ALEGIA TANDEMEAN BIDAIA

Ander Arandia alegiarrak eta Garbi Arroyuelo bilbotarrak Alegiatik Boli Kostara bidaiatu dute tandem baten gainean; 250 egun iraun ditu bidaiak eta 8.600 kilometro egin dituzte; bizikleta bidaiatzeko modu berezia dela eta asko ikasi dutela esan dute // 4

«Egunetik egunera
erronka desberdinak
gainditzen saiatzen naiz»

XABIER ORTIZ GABARAIN
SUKALDARIA ETA IDAZLEA

'El bosque sin retorno' hirugarren eleberria idatzi du tolosarrak; Bigarren Mundu Gerrako gertaeren eta fikziozko istorio baten uztarketaren emaitza da // 2

**Europako Judo
Txapelketan
urrea, Joseba
Regillagak eta
Joseba Etxarrik**

Junior mailako Tolosa Judo Klubekoek Nage No Kata modalitatean lortu dute; senior mailan, bigarren izan dira Saralegi eta Regillaga // 7

**Kuadrillen
Eguna
izango dute
larunbatean
Tolosan**

Sanjoanei hasiera emateko txupinazoa hilaren 23an botako dute, baina asteburu honetan ekitaldi ugari gozatu ahalko da // 3

**Aurrera
eraikina
botatzeko
lanak amaituta**


Enpresa eraikitzaileak baimenak eskuratu ostean, etxebizitza berriak egingo dituzte bertan // 5

«Aberasgarria da,
gaztetxotan
topaketa gutxi
izaten baitira»

**UGAITZ RENOBLES
PILOTARIOHIA**

Hitza Pilota Txapelketa irabazi zuen lau aldiz, etorkizuneko eta nagusien mailan // 6





LEYRE CARRASCO

«Eleberriaren markoa gertaera erreala da, baina istorioa fikzioa»

**XABIER ORTIZ GABARAIN
SUKALDARIA ETA IDAZLEA**

Hirugarren liburua kaleratu berri du Xabier Ortiz idazle tolosarrak; 'El bosque sin retorno' Huescako Canfranc herrian gertatzen den misteriozko eleberria da

Leyre Carrasco

Sukaldaritza ogibide eta literatura afizioa du Xabier Ortizek (Tolosa, 1974). Bere pasioari tiraka hirugarren eleberria sukaldatu berri du idazleak, gainontzekoe-kin alderatuta guztiz desberdina dena. Bigarren Mundu Gerrako gertaeren eta fikziozko istorio baten emaitza izan da *El bosque sin retorno* eleberria.

Labetik atera duzun hirugarren lana da 'El bosque sin retorno'. Nola izan zenuen eleberri honekin hasteko ideia?

Literaturari buruzko talde bat sortu nuen Facebook-en (*Todo Literatura. Xabier Ortiz Gabarain*). Taldeak 12 mila kide baino gehiago ditu, eta horietako asko idazleak dira. Halloween iritsi zenean, beldurrezko kontakizun bat idaztea proposatu nuen. Ni ere idaztera animatu nintzen eta orrialde bateko kontakizun labur bat argitaratu nuen. Taldeki-deek kontakizun horren biga-

rren zati bat eskatu zidaten, eta bigarren zati bat sortu nuen. Kontakizunak jarraitu egin behar zuela esan zidaten, eta orduan istorioa sakontasun handiagoz bistaratu nuen, hortik nobela bat atera nezakeela pentsatu nuelako. Facebook-eko taldean zortzi kapitulu idatzi nituen denera, argitaletxe batetik deitu zidaten arte.

Lehen aldia da beldurrezko eleberria idazten duzuna, ezta?

Bai, misterio puntua duen thriller-ra da. Azkenaldian thriller asko ari naiz irakurtzen, dinamika handiko eta irakurtzeko entretengarriak diren eleberriak direla iruditzen zaizkit.

Zure beste bi lanekin alderatuta nahiko desberdina ezta?

Bakoitza ama batena da. Bata komedia bat da, bestea kontakizun nostalgikoa, eta azken hau misteriozko thriller bat. Oso kapitulu laburrak ditu, eta akzioa eten-gabea da.

Zer kontaktzen duzu bertan?

Madarikazio bat erori da Canfranc-eko biztanleengan, non biktimek eldarnioa jasaten duten heriotza iritsi arte. Daniela Bolaños protagonista nagusiak gurasoen heriotza arraroa pairatu du eta hori ikertzen hasi da. Ikerketa Canfranc-ek Bigarren Mundu Gerran jasan zuen okupazio naziarekin hasten da, naziak iritsi ziren Espainia osoko herri bakarra baita. Erantzunen bila, baso beldurgarri batekin eta bertan bizi den pertsonaia misteriozko batekin gurutzatzen da. Pertsonaia hau elezahar ilun batean bilduta dago, non bere etxe-ari su eman zion barruan zeuden bizilagun guztiak hilez. Hortik aurrera ikerketak jarraitzen du eta misterioa Canfranc-en ondoren dagoen basoan zentratzen da. Oso baso labirintikoa eta ingurutzaila da.

Nolakoa da Daniela?

Daniela zoro samarra da, batzuetan erotuta agertzen da eta bere senaren baitan mugitzen da. Idazlea da eta ikertzen ari den bitartean eleberri bat idazten ari da, ikertzen ari den kasuaren inguruan, hain zuzen.

Fikziozko nobela bat da edo benetako kasu bat da?

Eleberriaren markoa benetakoa da, historian zehar gertatu diren guduak ere deskribatzen baitira, hala nola, Napoleonen batailak. Hala ere, istorioa fikziozkoa da.

Misteriozko eleberri bat idaztea erronka izan dela esango zenuke?

Bai, izan ere, egunetik egunera erronka desberdinak gainditzen saiatzen naiz. Adibidez, egun batean arabieraz hitz egiten ikastera animatu nintzen eta ikasi egin nuen, edota beste urte batean idaztera animatu nintzen eta hemen nago.

Nori dago zuzenduta?

Nobelak eta thrillerrak maite dituen orori, baina, batez ere, irakurle gazteei, 25-40 urteen arteko eta thrillerrak irakurtzeko ohitura duten irakurleei.

Maiatzaren 27an Tolosan aurkeztu zenuen. Nolako harrera jaso zuen?

Bikaina izan zen, aretoa betetzea lortu genuen. Gainera, Ane Odriozola idazlea ere etorri zen. Nik uste dut hori izan zela gure helburua, hau da, saltzen duzun kopuruaz gain, herritarren interesa piztea. Hori oso polita eta aberasgarria da, norbaiti gonbita egin eta onartzeak merezi duela sentiarazten duelako.

ELKARRIZKETA OSORIK

Elkarrizketa osorik, *Ataria.eus* webgunean.

Musika Eskolako kontzertuak, datorren astean

Ikasturte amaieraren bueltan, ekainaren 19tik 22ra, lau kontzertu eskainiko dituzte Tolosako Udal Musika Eskolako ikasleek

Erredakzioa

Aurtengo ikasturtean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko garaia heldu zaie Tolosako Musika Eskolako ikasleei. Izan ere, lau kontzertu eskainiko dituzte datorren astean zehar, herritarren gozamenerako.

Ekainaren 19an, astelehena, perkusio eta orkestrako ikasleen kontzertua izango da lehena, 19:00etan, Zerkausian. Asteartean, ekainak 20, abeslari eta talde anitzen txanda izango da, hau

ere, 19:00etan, Zerkausian. Ekainaren 21ean, helduen, akordeoien, txistuen, klarineteen eta talde anitzen kontzertua egingo da, aurrekoen ordu eta leku berean. Eta amaitzeko, ostegunean, ekainak 22, metalezko instrumentuen taldeko ikasleen zein flauta, saxofoi eta biolineko ikasleen kontzertua izango da, 19:00etan, Berdura plazan.

Tolosako Udalak herritar oro animatu du «ikasleen lana ikusi, entzun eta kontzertuez eta musika onaz gozatzera».



Hiru kontzertu Zerkausian eskainiko dituzte musika eskolako ikasleek. ATARIA

Amaia Elizaran dantzariak 'Thir' pieza eramango du Parisera eta Irlandara

Erredakzioa

Amaia Elizaran dantzari eta koreografo tolosarrak Frantziara eta Irlandara eramango du *Thir* dantza eta zuzeneko musikako bere azken pieza datozen egunetan. Artista tolosarrak Liam Ó Maonlaí musikari irlandarrarekin batera egindako lana Parisen erakutsiko du gaur. Ondoren, gauza bera egingo du larunbatean, hilaren 17an, Borrisen (Irlanda) ospatzen den Idazketa eta ideiak jaialdian. Ekitaldi honetan, Richard Ford, Ian McEwan, Bernardine Evaristo, Warren Ellis eta Imelda May bezalako artistek ere parte hartuko dute, beste askoren artean.

Produktu senegaldarren erakusketa izango da larunbatean

Erredakzioa

Senegaldarren Booloo elkarteak Pintxo potea antolatu larunbaterako, hilaren 17rako. Plaza Zaharrean izango da, eta 17:00etatik 20:00etara bitarte egingo dute. Elkartetik esan dutenez, produktua senegaldarren erakusketa izango da, eta guztia alaitzeko, Sapali perkusio musika afrikarraren doinuek girotuko dute arratsaldea. Boolook *taldea* egin esan nahi du wolof hizkuntzan. Eta horixe da elkarteko kideek egin nahi dutena: gurean bizi diren senegaldarrak bildu, euren kultura, sustraiak eta ohiturak ahaztu gabe, eta bide batez, bertakoei erakutsiz.

Kuadrillen Eguna eta txistulari kontzertua, lehenengo asteburuko ekitaldi nagusiak

Larunbatean Kuadrillen Eguna izango da, eta 'Tolosako Azoka Bereziak' izango da gaia; igandean, txistulari kontzertua egingo dute, eta Alex Sardui Gatibuko abeslaria izango da gonbidatu nagusia

Josu Artutxa

Ekainaren 23an izango da Tolosako San Joan festei hasiera emateko txupinazoa. Hala ere, asteburu honetan, ostiraletik igandera, hamaika ekitaldi izango dira, askotarikoak eta adin guztietako herritarrentzat.

Hilaren 17a, larunbata, esaterako, Tolosako gazteen egutegian gorritz markatutako eguna da, Kuadrillen Eguna ospatuko dutelako. 12:00etan emango diote hasiera, Plaza Berrian, txupinazoarekin, eta ondoren, Jose-lontxos txaranga eta Giro Arte dultzainero taldea kalez kale ibiliko dira. Horiez gain, Batu More batukada feministak, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak eta Tolosa Kantarik ere alaituko dituzte kaleak eguerdian.

Txupinazoaren aurretik, 11:00etan, jolasak egingo dituzte herriko zenbait kuadrillek, eta galtzaileek hurrengo urteko kuadrillen eguna antolatu beharko dute. Honako hauek dira aurtengo jolasetarako antolatzaileek izendatutako kuadrillak: Ttipi, Botanika Sintetika, Botaek, Haundikeritan, Gaba ta lagunak, Nahastemastrek, Zapal, Pollo, Girgilo, GBG, Turukumutraku eta Txiruleroak.

14:00etan, kuadrillen bazkaria egingo dute Euskal Herria plazan; 1.000 lagun inguru elkartuko dira bertan. Ondoren, musikarako eta dantzarako tartea izango da, Iratzar erromeria taldearekin, Larrain Dantzarekin



Iazko jaietan, kuadrillak Plaza Zaharrean. J. ARTUTXA

eta Mulambo perkusio taldearekin. Kuadrillen Eguna alaitze aldera, aurtun ere, gai bat aukeratu dute antolatzaileek, eta *Tolosako Azoka Bereziak* izango da aurtengo gaia. «Haragi, mikologika, garagardoa festa... asko dira Tolosan ospatzen diren azoka bereziak, eta, beste gauza askoren artean, hori ere bada tolosar egiten gaituena. Omenaldiak, memeak, umorea... Kuadrillen Egunean ikusiko ditugu zuen ideia guztiak eta urtero bezala, onenak irabazi dezala», adierazi dute antolatzaileek. Izan ere, ideia onenari saria emango diote bazkal ostean.

TXISTULARI KONTZERTUA

Igandean, Haurren Eguna ospatuko dute sanjoanen barruan. Zumardiaundian hainbat ekital-

di izango dira goizean. Horrez gain, Orkestina Band Jazpana eta Puro Relajo taldeen kontzertuak izango dira, eguerdian eta gauean.

19:00etan, Euskal Herria plazan, Tolosako Udal Txistulari Bandak antolatuta, txistulari kontzertu berezia egingo dute. Euskal Herriko txistulariak eta musikari gonbidatuak izango dira tartean, baita Hodeiertz abesbatza ere, eta Gatibu taldeko Alex Sardui abeslaria izango da gonbidatu berezia. Txistularien errepertorioan ezagunak diren kantuez gain, herriarekin lotura duten bi kantu eta Euskal Herrian ezagunak diren abestiak interpretatuko dituzte. Gainera, sorpresarako tartea ere izango dela aurreratu dute antolatzaileek.



Txistulari Bandak 'Arnas Berriz' emanaldia eskaini zuen iazko sanjoanetan. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Zortzi hilabetetan Alegiatik Boli Kostara bidaiatu dute, tandem baten gainean, Ander Arandia alegiarrak eta Garbi Arroyuelo bilbotarrak; zentzu guztietan, erronka handia izan dela diote

250 egunez, bizikleta bizimodu

Irati Salzar Artola Alegia

Tandem batean, Alegiako plazatik abiatu eta Boli Kostara egin dute bidaia Ander Arandia alegiarrak eta Garbi Arroyuelo bilbotarrak. Irailaren 15ean ekin zioten bideari eta duela bi aste itzuli dira etxera, «helburua beteta».

Bidaian atera aurretik, Ugandara iristea jarri zuten helburu, zortzi edo bederatzi hilabetetan. «Uganda zen Afrika erdialdean ezagutzen genuen puntu bakarra, bertako Mukwano Lagun erakundea ezaguna dugu, eta haiek bisitatzeko ideia genuen buruan», kontatu du Arandiak.

Ugandaraino, baina, 19.000 kilometro daude, eta zortzi hilabetetan 8.600 kilometro egin dituzte, Boli Kostara iritsi arte. «Pentsa ze urrun geratu garen». Ez zekiten hilabeteen zenbat kilometro egiteko gai izango ziren. Espainiar penintsula zeharkatzeko, 1.400 kilometro egiteko, hilabete behar izan zuten.

Garrantzitsuenak, ordea, egin da zeukaten: «Noranzkoa markatu genuen, Afrika zein lekutatik zeharkatu nahi genuen erabakita genuen, beraz, iristen ginen lekura iritsiko ginen».

Maroko «erritmo oso onean» zeharkatu zuten, «nahiz eta al-dapatsua izan». Mauritaniara nekatuta iritsi zirela aitortu dute: «Basamortua zeharkatzeak ere presioa eragiten du; esaterako, 80 kilometrotan ez zegoen ezer, eta gutxienez kilometro horiek egin behar genituen ura topatzeko». Marokon aterpetxe askotan lo egin zutela kontatu dute, baina Saharan, zerbitzurik ez, eta gasolindegietan, zaintzaileren baten etxean edota taberna batean hartu zutela ostatu.

Mauritanian ere desertuan eragin behar izan zieten pedalei. «Nuadhibu hirian, kontaktu bat genuen eta eskerrak, zeren basamortu erdian, bagenekien norbait gure zain izango zela, eta psikologikoki sekulako laguntza izan zen».

Ordurako osatuak zituzten 4.400 kilometro, «erritmo nahiko azkarrean». «Bidaia luzea zela



Ginea Konakryn, Sierra Leonara sartu aurreko Pamelap herrian, etxe atarian kanpatzen utzi zieten familiarekin. BIRA BIDAIA

eta nekatuta gindoazela konturatu ginen eta erabaki bat hartu genuen: autobus batean egitea aurrera». Mauritaniako hiriburuan, Nuakxoten, beste kontaktu bat zuten eta astebeteko geldialdia egin zuten. «Autobusez Mauritania barnealdera joan ginen, basamortuko herrixka batzuk bisitatzera».

Handik, Senegalera, bizikletaz. Mugara iritsi aurretik, «lehenengo gertakari gogorrena» bizitzeko tokatu zitzairen. «Diawling parke nazionalean pasa behar genuen gaua eta zerbait janda intoxikatu egin nintzen, beherakoarekin eta gorakoarekin gau oso txarra pasatu nuen», kontatu du alegiarrak. Gauzak okertzen direnean, ordea, ez dakite zortea den, baina beti agertu izan zaie laguntzeko norbait. «Mediku batekin egin genuen topo eta pilula bat eman zidan».

BIDAIAREN BESTE ZATI BAT

Gertakari horren ostean, bidaia beste modu batera planteatu zuten. Lasaiago hartu eta GKE batzuen lana bisitatzeko hasi ziren. Kellesensa izan zen horietako bat; Tolosaldeko lagun talde batek Senegalgo Kelle herrian proiektu bat du martxan, eta hura ezagutzen pasa zituzten bost bat egun. «Hor bidaiaren beste zati bati ekin genion; bizi-



Mauritaniara sartu berritan, Nuadibura bidean. BIRA BIDAIA

kletaz bai, baina askoz ere motelago, bisitatu luzatuz». Herrialdeak hobeto ezagutzeko modua izan zutela dio Arroyuelok: «Ez baduzu lasai hartzen, herrialdeaz ez duzu behar bezala disfrutatzen, eta bertakoekin pare bat egun pasata, beste era batera bizitzen duzu herrialdea».

Gobernuz Kanpoko Erakundeak bisitatzeko garaian, «laguntzearen konplexutasuna» agerian geratu zaie: «Zaila da laguntzen asmatzea, menpekotasunik sortu gabe edo inguruarekiko desberdintasun nabarmenik sortu gabe... barruak mugitu dizkigun gai bat izan da».

Senegalen, Gambian eta Senegalgo Casamance eskualdean geldialdiak egin eta Ginea Bis-

saura iritsi ziren jarraian. «Inauteriak ezagutzeko aukera izan genuen, hango familia baten eskutik».

Handik aurrera, beroa «jasanezina» bihurtzen hasi zen, eta moskitoek ere ez zieten «eroso» mugitzen uzten. «Bidaia puntu bat gehiago zaildu zitzaigun, eta egoerak eraginda, aditu bihurtu ginen behar genuena eskatzen, inongo erreparorik gabe. Izugarria da jendeak duen borondatea, inoiz ez dugu ezezkorik jaso».

Bissautik aurrera, zerbitzuak ere «eskasagoak» topatu zituzten, eta ezin izaten zuten aurreikusiri zer topatuko zuten. «Eguerdian, geldialdia egin, eta uraz eta jatekoaz hornitzen ginen eta

arratsaldean beste zati bat aurreratzen genuen». Norabait iristean, leku bat eskatzen zuten lo egiteko. Dinamika hori errepikatu dute Ginea, Sierra Leona, Liberia eta Boli Kostan: «Herri txiki-txiki iritsi, bertakoekin hitz egin, herriko arduradunari bertan lo egiteko baimena eskatu eta ura eskatzen genuen dutxa-

Tandemean 8.600 kilometro egin dituzte; Afrika mendebaldeko kostatik iritsi dira Boli Kostara

tzeko». Orduan hartzen zuten tartetxoa bertako herritarrekin hitz egiteko. «Haurrak gerturatzeko zitzazkigun gehienbat, udalekuekin ikasitako jolas guztiak han jarri ditugu berriro ere praktikan».

<<ERRONKA HANDIA>>

250 egun iraun ditu bidaiak, eta dena 147 etapa egun izan ditu bikoteak. «Erronka handia izan da zentzu guztietan: kirol erronka izan da eta bikotean egitea ere erronka handia izan da».

Bidaian zehar, gizakiak gauza berrietara ohitzeko duen gaitasunak harritu du Arroyuelo. Bidaiaren gogortasunak harritu du gehienbat Arandia. «Banekien gogorra izango zela bizikletaz bidaiatzea, baina bidean topatu dugun laguntza gabe, badakit ezin dela horrelako bidaiarik egin». Fisikoki ere «beti muga» izan dela aitortu du.

«Paisaia izugarriak» ikusi dituzte, «bizimodu oso desberdinak, historia oso latza daukaten herrialdeak, oraindik ere kolonizatuta dauden herrialdeak...».

Bikotearen ustez, bizikleta, bidaiatzeko modu partikular bat da, «bizimodu bat». Ugandara iritsi ez badira ere, helburua lortu dute: «Zortzi hilabetez Afrikan zehar bidaiatu nahi genuen eta ikusi nora arte iristeko gai ginen». Ikasi ere asko ikasi dutela kontatu dute: «Edonon ikasten duzu, izan Ugandan, izan Marokon edota Salamancan».

Bidaian, Instagrameko 2ra bidaia profiletik kontatu zituzten ibilerak, eta Bira Bidaia blogean ere zintzilikatuta dute gutzia.



Rafa Gonzalezek Otañoren irudia egin du egurrean

ZIZURKIL // Rafa Gonzalez artisaun zizurkildarrak Pello Mari Otañoren irudia oparitu dio Hernandorena kultur taldeari. Taldekideek horrela erabakita, udallexean egongo da ikusgai aurrerantzean. Gonzalezek Zizurkilgo armariaren artelana egin zuen 2013an, eta alkatearen aginte makilaren euskarria 2021ean.

Adunako eskola txikien festarako logoa aukeratuko dute

ADUNA // Adunako eskolak bere eguna ospatuko du larunbatean, 10:30etik 13:00etara. Ekitaldia amaitzean, kultur aretoan, datoren urtean herrian antolatuko den Eskola Txikien festarako logoen erakusketa zabalduko da. Ondoren, logo sarituaren aurkezpena eta sari banaketa egingo dira.

Herritarrek erabakiko dute nork botako duen txupinazoa

IRURA // Irailaren 22an jaien hasierako txupinazoa botatzeko hautagaiak proposatzeko aukera eskaini die herritarrei Irurako kultur mahaiak. Proposamenak 688 874 896 zenbakira bidali beharko dira ekainaren 20a baino lehen. Txupinazoa botako duen pertsona edo taldearen izena eta arrazoia azaldu beharko dira.

Udako eskaintza egin dute Olaederra kiroldegian

AMASA-VILLABONA // Olaederra kiroldegia udako kanpaina abiatu du. Helduentzat aquagym, running, procircuit, zumba, igeriketa, clycling, master class eta pilates ikastaroak antolatu dituzte. Gaztetxoentzat, berriz, clycling, zumba eta igeriketa, besteak beste. Kiroldegian eman beharko da izena.

Bertso paperak aurkezteko aukera dago igandera arte

Hernandorena elkarteak antolatzen duen IX. Pello Mari Otaño bertso-paper lehiaketan maila ezberdinetan parte hartu ahal izango dute bertsolariek

Erredakzioa

Hernandorena kultur elkarteak, Harituz bertsozaleen elkargunearekin eta Zizurkilgo Udalarekin batera, IX. Pello Mari Otaño bertso-paper lehiaketa antolatu du. Hiru mailatan banatuta parte hartu ahal izango dute herritarrek eta lanak ekainaren 18a baino lehen bidali beharko dira info@hernandorena.eus helbidera. Posta arruntez ere bidali daitezke lanak, Hernandorena kultur elkartearen helbidera, Pello Mari Otaño plazako Iriarte etxera.

Bidalitako bertsoek jatorrizkoak izan beharko dute, inon argitaratu gabeak. Epaimahai lanak Harituz elkarteko kideek egingo dituzte, eta hala erabakiko balute, sariren bat hutsik gelditu daitezkeela esan dute. Lan sarituak ondoren, TOLOSALDEKO ATARIAren ale batean argitaratuko dira.

SARIAK MAILA GUZTIAN

Gelen arteko mailan, Tolosaldeko Lehen Hezkuntzako eta DBHko 1-2 mailetako taldekideek parte hartu ahal izango dute eta gutxienez 3 bertso edo 6 koplako sorta aurkeztu beharko dute; 14

urtetik 18 urtera artekoek gazteen mailan parte hartuko dute eta gutxienez 6 bertso sorta osatu beharko dute; azkenik 2009an edo aurretik jaiotakoek helduen mailan aurkeztu beharko dute euren bertso-papera eta gutxienez 8 bertso sorta idatzi beharko dute.

Gazte eta helduen mailan, aurreko bertsotarako gaia jarri diete antolatzaileek: *ahotsa*. Gelen arteko mailan gai librean aritzeko aukera emango zaie gaztetxoek, baina nahi izatera, beste bi gai hauen artean aukeratu ahal izango dute: *gehiegi oihukatzen dugu* edo *bere ahotsa entzuteak lasaitzen nau*. Hain zuzen, gelen arteko lehiaketa honetan, lehen saria eskuratzen duen ikasgelak bertsolari baten bisita jasoko du eta bigarren saria jasotzen duenak, berriz, bertso karta-jolasa.

Gazteen mailan, 250 euro eta 125 euroko bi sari banatuko dira eta helduen mailan berriz, lehen sailkatuak 500 euro eta bigarrenak 250 euro jasoko du sari gisa. Aurrerago jakinaraziko dute noiz egingo duten Pello Mari Otañoren bertso-paper lehiaketako sari banaketa ekitaldia.

Eraikin zaharra bota eta etxebizitza berriak egingo dituzte Aurreran

Enpresa eraikitzailea baimen berezi batzuk noiz eskuratuko zain dago lanei ekiteko; Zizurkilgo Udalak ingurune guztia berrurbanizatu eta egokituko du

Erredakzioa Zizurkil

Amaitu dituzte Zizurkil en Aurrera eraikina botatzeko lanak. Maiatzaren 11n hasi ziren eraiste lanak eta dagoneko hutsik ageri da orubea. Urtetan taberna egon da eraikinaren bearruan eta 2010ean itxi zuten betirako. Eraikina hondamendi egoeran zegoen eta horregatik erabaki dute eraistea.

Garai bateko Aurrerako eraikinaren tokian etxebizitza proiektua dago aurreikusita. 14 etxebizitza egingo dituzte bertan, salmenta librekoak. Bi eta hiru logelako etxebizitzak izango direla jakinarazi dute eta etxabeaen baju komertzialak egingo dituztela. Udalak 80 metro karratuko etxabea jasoko du ekipamendurako eta sotoan, berriz, autoentzatz aparkalekuak egingo dituzte. Jakinarazi dutenez, eraikuntza lanak hasteko epea ez dago oraindik zehaztuta. Uholde arriskuko zonaldean dago orubea eta Ur Agentziaren baimen berezia behar dute eraiki ahal izateko. Adierazi dutenez, tramitazio bidean da baimena. Aldi berean, Adif-ek trenbidearen gertutasuna dela eta, baimena eman behar du eraikin berria egiteko. Bigarren baimen hori ere tramitazio bidean dagoela esan dute udaltik. Bi baimen berezi horien zain dago enpresa eraikitzailea, lanei ekin ahal izateko.



Aurrerako eraikina eraitsita, 14 etxebizitza berri eraikiko dituzte bertan. J.M.

Eraikinari lotuta, inguruaren urbanizazio lanak ere egingo dituzte. Etxebizitza berrien inguruan ez ezik, zonalde osoan ere egingo dira lanak. Alde batetik, Aurrera plazako garajeetarako sarrera balio gabe geratuko da. «Oso aldapatsua da eta irtenbide berria emango zaio. Eraikin berritik egingo zaie sarrera garaje guztiei», esan dute udal ordezkariak. Gaur egun, garajeetako sarrera dagoen gunen horretan oinezkoentzat pasabide zabala egingo dute, eta modu horretara, tren geltokitik datozen oinezkoek zebra bidea izango dute, Au-

rrera plaza aldera segurtasunez gurutzatu ahal izateko. «Plazak zabalera irabaziko du pasabidea irekita eta oinezkoen joan-etorria ere handiagoa izango da», adierazi dute udaltik.

Zizurkilgo Geltoki kalean, espaloi bakarra dago gaur egun errearen alboan. Lanak amaitutakoan, ziurtatu dutenez, trenbide aldetik ere espaloia egingo dute, beti ere, oinezkoen segurtasuna bermatzeko: «Erreka eretzeko pasealekua ere berrurbanizatu egingo dugu, lurzoru berria jarritz eta inguru guztia txukunduz».

Finalak Zizurkilen izango dira, uztailaren 1ean

Erredakzioa

VII. Ataria Pilota Topaketa bere azken fasean sartu da. Finalak Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan izango dira, uztailaren 1ean, eta partidak 10:00etan hasiko dira. Dagoeneko palazko modalitatean jokatu duten finalistak zehaztuta daude, herenegun arratsaldean jokatu baitzen azken jardunaldia.

Hori horrela, benjaminetan Lander Lasa eta Xuhar Uzkudun bikoak Unax Lasa eta Aratz Zinkunegi bikoak izango du aurrez aurre. Alebinetan, June Lasa eta Aiora Goikoetxea bikoak Maren Goitia eta Maialen Elola izango ditu aurkari. Infantil mailan, Uxue Murua eta Ibai Goitia bikoak Leiane Lopetegi eta Maddi Lasa izango ditu aurkari.

Eskuzko modalitateari dago-kionez, egunotan jokatzen ari dira finalerdiak. Atzo arratsaldean jokatu zituzten infantil mailakoek Amezketan. Gaur alebinen

FINALERDIAK

Eskuz, benjaminak B

Altzo, ekainak 16, 18:30

Langarika-Otaegi
Arregi-Eskudero
Gonzalez-Landa
Artola-Balerdi

Eskuz, benjaminak A

Altzo, ekainak 16, 18:30

Aizpurua-Ugarte mendia
Landa-Zufiria
Altuna-Artola
Carrillo-Carrillo

Eskuz, alebinak

Zizurkil, ekainak 15, 18:30

Beñat-Ekai
Ruiz-Eizagirre
Artola-Iraola
Artola-Arteaga

txanda izango da Zizurkilen, eta bihar jokatuko dituzte finalarrerekoak benjamin B eta benjamin A mailakoek Altzoko pilotalekuan.



Herenegun, Bidanian, palazko azken jardunaldiaren une bat. A. IMAZ



Txertudi eta Ugaitz Renobales, 2004ko Hitza Pilota Txapelketan garaile. I.T.

«Pilotaz gozatzeko eta ikasteko aholkua emango nieke gaztetxo»

UGAITZ RENOBALLES PILOTARIOHIA

Imanol Garcia Landa Alegia

Ugaitz Renobalesek (Alegia, 1986) lau txapel jantzi zituen Hitza Pilota Txapelketan, horietako bi etorkizunen mailan (2004 eta 2005) eta beste bi nagusietan (2007 eta 2008).

Etorkizuneko mailan lortutako bat Txertudirekin izan zen, eta bestea Larrazabalekin. Nagusietako biak Jon Bengoetxearekin lortu zenituen.

Txertudi eta Larrazabalekin jokatuak txapelketak oso gustura jokatu nituen. Txertudirekin ez nuen aurretik beste txapelketarik jokatu, eta ilusioa egin zi-

dan, oso ondo konpondu ginen eta. Larrazabalekin dezente jokatzen nuen eta ez genuen pentsatzen txapela eramango genuenik, eta ilusio berezia egin zigen. Oso maila handia izaten zen; Bizkaitik eta Nafarroatik etortzen ziren parte hartzeratxapelketan. Eta Bengoetxearekin oroitzapen oso onak ditut. Txapelketa askotan osatzen genuen bikotea. Oso pilotari segurua zen eta emaitza onak lortzen genituen.

Txapelketa beraren inguruan zer oroitzapen duzu?

Etxetik gertu jokatzeak, eta gero partidak ikusteak jende ezaguna

jokatu zen. Oso gustura jokatzen nuen txapelketa izaten zen. Finalak Beotibarren jokatzeak ere ilusioa egiten zizun.

Iñaki Artolak esan zuen gogoan zuela nola zure partidak ikustera joaten zirela.

Hori irakurri nuenean berehala bidali nion mezua. Horrelako pilotari batek nire izena aipatzeak sekulako ilusioa egin zidan. Afizionatuetan nahiko puntan ibili nintzen, eta Iñakik esan zidan hainbatetan nire partidak ikustera joaten zirela.

Orain aita bezala tokatu zaizu Ataria Pilota Topaketari jarraipena egitea.

Zortzi urteko semeak parte hartu du, aurrebenjaminetan. Partida guztietara joan naiz, eta Alegia-ko haur batzuen partidak ikustera ere bai.

Komentatuko diozu semeari zuk ere parte hartu zenuela orain urte asko?

Bai, esan diot, eta elkarrizketa egin behar zenidatela esan diotenean, ilusioa egin dio.

Eta zer iritzi duzu horrelako txapelketa eta topaketez?

Oso aberasgarria iruditzen zait. Bere adinean oso topaketa gutxi egiten dira, eta beraien artean partidak jokatuz, lagun berriak eginez, oso polita iruditzen zait. Zuriz janzteak sekulako ilusioa egiten die. Amasan eta Beotibarren jokatu dituzte partidak, eta adin horretan beraientzako handia da esaterako Beotibar bezalako frontoi batean jokatzea. Bestalde, iruditzen zait oso ondo dagoela antolatuta. Hemen inguruan pilota elkarteetan jendea dago musu truk lanean ari dena ikaragarri, eta horiengatik ez balitz, ez dakit pilota nola egongo litzatekeen.

Zer aholku emango zenieke Ataria Pilota Topaketan parte hartzen ari direnei?

Pilotaz gozatzeko eta ikasteko. Denoi gustatzen zaigu irabaztea, baina orain gehiago da pilotan ikastea, eta lehiaketan pentsatzeko garaia iritsiko da geroago.

VII. Ataria pilota topaketa

Egutegiak, emaitzak, argazki galeriak...
topaketaren informazio guztia
Ataria.eus webgunean.



Gizonezkoen Gipuzkoako Sega-sail Txapelketa, igandean

AMASA // Igande honetan, ekainaren 18an, jokatu da gizonezkoen Gipuzkoako Sega-sail Txapelketa. Amasan izango da saioa, 12:00etan hasita. Lau segalari ariko dira lehian, horietatik hiru eskualdekoak: Jokin Etxeberria amasarra, Mikel Lizartza tolosarra eta Oier Urkola anoetarra. Laugarren segalaria Julen Gabirondo urnietarra izango da. 1.000 metro karratuko saila txukun eta azkar moztu beharko dute parte hartzaileek.

Tolosa gimnastika erritmikoko taldearen emanaldia

TOLOSA // Bihar, ekainak 16, 18:00etan, Tolosako Beotibar pilotalekuan ikasturte amaierako emanaldia egingo du Tolosako gimnastika erritmikoko taldeak. Bertan denboraldiari bukaera emango diote familia, lagun eta babesle guztiei eskertza modura. Bestalde, gimnastika erritmikoa ezagutzera gerturatu nahi duten guztientzat, dagoeneko 2023-2024 ikasturterako izen ematea zabalik dute. Horretarako, cgrtolosa@gmail.com edota gimnasia.tolosacf@gmail.com helbide elektronikotara idatzi daiteke.

Elorri Udaberri Txapelketako finalak jokatu dituzte

ALEGIA // Udaberri Txapelketako finalak jokatu dituzte, bihar, 18:30ean hasita, Elorri pilotalekuan. Eskuz binaka, gizonezkoen alebinen eta infantilen bigarren mailako finalak jokatu dira. Alebinetan, Intxurreko Azpilikuetak eta Garmendiak Pagazpeko bikotearen aurka jokatu dute, eta infantiletan, Intxurreko Garaikoetxeak eta Leok, Aretxabaletakoen aurka. Jaialdian Gipuzkoako Lau eta Erdiko Txapelketako finalerdia ere jokatu da. Kadeteen lehen mailan, Intxurreko Muruak jokatu du. Etzi, 09:30ean, Mendebaldeko Lau eta Erdiko Txapelketako gizonezko kadeteen bigarren mailako finalerdia jokatu du Intxurreko Colladok. Bestetik, Intxurreko neskak palaz 5 eta erdi barruan finalak jokatu dituzte Hernanin. Jubenil 2. mailan Ainhoa Ugarte-mendia ariko da eta nagusien 2. mailan Anne Agirre.



Unai eta Joseba Regillaga, Joseba Etxarri eta Unai Saralegi, dominekin. ATARIA

Juniorrek urrea eta seniorrek zilarra

Europako Judo Txapelketan, Nage No Katan, lehen postua lortu dute Joseba Regillagak eta Joseba Etxarrik, eta Unai Saralegik eta Unai Regillagak bigarrena

Imanol Garcia Landa Tolosa

Europako Judo Txapelketan lehiatu diren Tolosa Judo Klube-ko bi bikoteak oso gutxiatik ez dira itzuli urrezko dominekin. Eslovenian jokatu zen Nage No Kata modalitateko txapelketa, astelehenean eta asteartean, eta senior mailako Unai Saralegik eta Unai Regillagak zilarrezko domina lortu zuten. Beraien hirugarrena jarraian da, eta puntu erdi batera geratu ziren lehen postutik. Junior mailako Joseba Regillaga eta Joseba Etxarri bikoarentzat lehen parte hartzea izan zen Europako Txapelketan, eta urrezko domina lortu zuten.

Astelehenean finalera sailkatzeko saioa izan zuten. Senior mailan bi multzo zeuden, bat zazpi bikotekoa eta bestea zortzikoa. Saralegi eta Regillaga bigarren horretan zeuden. Lehenengoak izan ziren saioa egiten eta ordubete egon behar izan zuten zain beste bikoteen emaitzak jakiteko. «Tentsio handiarekin bizitu genuen, hiru bikote pasatzen zirelako finalerako, eta hirugarren postuan jarri ginen oraindik beste hiru bikoteren saioa falta zenean», esan du Saralegik. Pasa ziren finalera, eta bertan sei bikote lehiatu ziren.

«Guk garbi genuen aurreko urtekoa behintzat berdindu egin behar genuela, hau da, gutxienez bigarren egin behar genuela», esan du Unai Regillagak. «Presioa bagenuen, gure aurretik gazteak txapeldun geratu zirelako, baina azkenean 0,5 puntugatik bigarren geratu ginen». Iaz txapeldun izan ziren bi anai alemaniarrek ere aurten aurkari gogorak izan direla azaldu du Saralegik. «Hiru aldiz jarraian izan gara txapeldunorde; ea gure klubeko gaztetxoek lortu duten postua lortzen dugun hurrengoan».

Sekulako lorpena izan da junior mailako Regillaga eta Etxarrirentzat urrezko domina lortzea. Sailkapen saioan multzo bakarra zuten eta lehen lau bikoteak pasa ziren finalera. «Nahiko lasai egon ginen saio horretan», esan du Etxarrik. Finalean beren kata onena egiten saiatu ziren, besteen emaitzak ikusi gabe. «Gurea egin ondoren, frantziarren aurretik jarri ginela ikusi genuen», esan du Joseba Regillagak. «Ondoren poloniarrek egin behar zuten saioa, sailkapenean lehen postuan geratu zirenak, baina gure atzetik geratu ziren finalean». Biek eskertu diete senior mailakoei: «Irakasle oso onak izan dira».

Gipuzkoako lehen maila galdu du Jexux Mari Mujika aizkolariak

Erredakzioa Ibarra

Lehen mailako Gipuzkoako Aizkora Txapelketa izan zen jokoan larunbatean, Aiako probalekuan, eta Jexux Mari Mujika ibartarra seigarren postuan geratu zen, eta horrenbestez, azken postuan. Emaizta horrek Mujikak lehen maila galtzea ekarri du, eta hurrengo denboraldian bigarren mailakoan ariko da.

Txapelketa Julen Alberdik irabazi zuen, 30.39ko denbora eginez. Bigarren Mikel Larrañaga (31.39) izan zen, hirugarren Eneko Otaño (31.58), laugarren Ugaitz Mugertza (37.45), bosgarren Suhari Rodriguez (38.37) eta seigarren Jexux Mari Mujika (40.52). Lehen hiruren artean lehia polita izan zen txapela janzteko ahaleginean, eta azken hiruren artean ere lehia estua izan zen maila ez galtzeko borrokan. Aurreko denboraldian Mujikak 2. mailako Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen eta horrek ahalbidetu zion lehen mailara igotzea.

Gipuzkoako Herri Txikietako finala bihar erabakiko da

Erredakzioa Ikaztegieta

Bihar erabakiko da areto futboleko Gipuzkoako Herri Txikietako finala Aizarnazabalgo frontoian, bertan jokatu baita itzulerako neurketa, 20:30etik aurrera, Aizarnazabal eta Ikaztegieta Kutturru taldearen artean. Joane-koan Ikaztegieta-koek 5-3 irabazi zuten. Joane-koan garbi ikusi zen bi taldeen artean alderik ez dagoela. Bi partidak kontuan hartuta berdinketa balego, 5 minutuko luzapena jokatu da, eta hor ere golik ez balego penaltietara erabakiko litzateke.

Joane-koan bezalaxe, oraingoan ere festa izango da, eta har-mailak leporaino beteko dira. Izan ere, Aizarnazabalen arratsalde osorako festa antolatu dute. Pilotaleku zaharrean nesken pala txapelketako finalerdia jokatu dira 16:30etik aurrera. Ondoren DJ Olber izango da frontoi berrian, finala jokatu den lekuan, eta bertan ez da faltako jan eta edatekorik, taberna egongo baita.



TAKE klubak antolatutako 3x3 saskibalo txapelketa izan zen jokoan Tolosan, eta nagusien mailan, Azkenak taldeak irabazi zuen nesketan, eta Sanjuan Magan mutiletan. Azkenak taldeak 17-16 irabazi zuen, final estu batean. Sanjuan Magan taldekoek garaipen errazagoa izan zuten, 20-15 gailenduz. Jende ugari izan zen txapelketa jarraitzen, eta TAKEtik nabarmendu dutenez, aurtengoan nesken talde gehiagok eman dute izena, eta horregatik bi txapelketa egiteko aukera izan dute. ATARIA



OSTEGUNA, 2023KO EKAINAK 15
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Datozen lau urteetara begira jarriko dira udalbatzak larunbatean

Etzi hartuko dute kargua udal hautetsi berriek; eskualdeari lotuta 13 herritan izango dute alkate berria, beste hainbestetan bigarrena eta bitan laugarren legealdia hasiko dute

Erredakzioa

Larunbatean aginte makilak hartuko dituzte udal hautetsi berriek. Eskualdean ez dago akordioetarako tarterik, eta boto gehien jaso dituzten hautagaiak izango dira alkate. Tolosaldeko 28 herrietatik hamahirutan alkate berriek hartuko dituzte alkate karguak, beste hainbeste izango dira bigarren legealdiko alkate-tza hartuko dutenak eta bitan laugarren legealdiari emango diote hasiera. Abaltzisketako Ion Zubizarreta Aldaia eta Asteasu-ko Pili Legarra Cortajarena dira laugarren legealdia hasiko dutenak. Zubizarretak Herrigintza plataformaren eskutik jarraituko du alkatetzan eta Legarrak Asteasu Batuzekin.

Bigarren legealdiari eutsiko diotenak berriz, hamahiru izango dira: Albizturko Iñaki Orbego-zo Arrospide, Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Xabier Olano Jaur-regi (1987-1991 legealdian izan zen alkate), Amasa-Villabonako Beatriz Unzué Esnaola, Belauntzako Iñaki Telleria Bengoetxea (2019-2023 legealdiko azken zatian hartu zuen kargua), El-duaingo Oihana Amundarain Zubillaga, Ibarako Igor Zapirain Lizarribar, Irurako Gorka Murua



Larunbatean izango dira aginte makilak hartzeko ekitaldiak. ATARIA

Macuso, Larraulgo Maite Arana Perez, Leaburu-Txaramako Joxe Ramon Eizagirre Sorondo, Lizartzako Iñaki Azpiroz Beldarrain, Orendaingo Migel Anjel Arsuaga Azurmendi eta Oresa-ko Gurutze Etzeababal Iturrioz (2019-2023 legealdiko azken zatian hartu zuen kargua). Horietatik 9 dira EH Bilduko hautagaiak, hiru herri plataformetakoak (Albiztur Bizirik, Alkizako Abertzale Ezkertiarak eta Belauntzako Denok Bat) eta bat PSE-EEkoa.

Aurpegi berriak izango dira eskualdeko beste hamahiru herritan; Adunan Kristina Rodriguez Mendikute, Alegian Regina Sorarrain Lasa, Amezketa Mikel Arteaga Zabala, Anoetan Egoitz Luisa Urkola, Baliarrainen

Ugaitz Garmendia Aurkia, Berastegin Andoni Zuriarrain Iturbe, Berrobin Aitzol Izquierdo Diaz de Gereñu, Bidania-Goiatzaren Joan Inazio Zinkunegi Urdapilleta, Gaztelun Eider Olazar Elduainen, Hernialden Luis Arana Goya, Ikaztegieta Alba Garmendia Castaños, Tolosan Andu Martinez de Rituerto Arregi eta Zizurkil Maite Amenabar Alkorta. Zortzi EH Bilduren hautagaiak dira eta beste bostak herri plataformetakoak (Aurrera Alegia, Baliarraingo Auzolanean Bizirik, Berrobi Bizi, Bidania-Goiatzko Ibiri eta Hernialdeko Herniope).

Generoari dagokionez eskualdean 18 alkate gizonak izango dira eta 10 emakumeak.

OSTEGUNA 15

AGENDA

Deialdiak

Amezketak. Desfibriladore automatikoa erabiltzen ikasteko saioa. Kultur etxean, 17:00etan.

Amezketak. Diagnostiko Tolosaldea. La privatización de la sanidad en el oasis vascoliburuaren aurkezpena, kultur etxean, 19:00etan.

Anoeta. Greba feminista antolatze-ko bilera irekia. Eragileen lokalean, 17:00etan.

Ibarra. Bihotz-biriketako bizkortze-an oinarritutako doako formazioa, 17:00etan Txontxon.

Tolosa. Lurreamendi egoitzako festa: 11:00. Bingoa kartekin. 16:00. Bideoen proiektzioa.

Tolosa. Ospitalea etxera doanean hitzaldia, Apeztekoa doktoreak eskainia. Zerkausian, 18:00etan.

Tolosa. Bizitza amaieran bidelaguntza, kultur etxean, 18:30ean.

Tolosa. Ahots-oihartzunak podcast klubaren saioa, kultur etxean, 19:00etan.

28 KANALA

15:30. Tolosaldea Gertutik; **16:00.** SOS Arte Eszenikoa; **16:40.** Harri Salda; **21:30.** Tolosaldea Gertutik; **22:00.** Playlist.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea; **10:00.** Kirol tertulia; **12:30.** Pasahitza. Albisteak; **16:00.** Hamaika esateko. Irura eta xarea; **18:00.** Gazteen lekutik. Amezketa gaztelekuan; **20:00.** Uzturre blues. Blues musika.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Leire Andres Morant. Zabalarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ederra izango dugu. Goizean behe-hodei bakanen bat agertuko bada ere, eguzkiak nahiko azkar xurgatuko ditu eta goiz erdi edo eguerditik aurrera zeru urdina eta giro eguzkitsua nagusituko dira. Ipar-haizea ibiliko da eta tenperaturak gora egingo du, 23-26 graduan joz goia egunaren erdiko ordutan.

Bihar. Uda sasoiko giroa. Egun osoan zehar erdi eta goi-mailako hodeiren bat edo beste ikusiko da zeruan eta arratsaldean bero-hodeiren bat garatuko da, baina giro lasaia izango dugu eta eguraldi eguzkitsua gozatu ahaliko da. Haizea goizean aldakor ibiliko da, arratsaldean ipar-ekialdetik finkatuko delarik. Tenperatura igo egingo da, 26-29 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez



zozketak

Atarikideentzat **bi sarrera bikoitz** ditugu

BIZIPOSTU DANTZAN!
Ikuskizuna

Ekainak 17, larunbata,
18:30etan.
Amasa-Villabonako
Olaederra Kiroldegian



Atarikideentzat **bi material** sorta

BIZIPOZA
elkarteko
materiala



Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**